



11. jarduera: Lagun artean - Heriotza eta errituak.

Izena:	Data:
--------------	-------------

IKUS-ENTZUNEZKO ERREPORTAJEA: "Heriotzaren inguruko ohitura batzuk"

Lehen ikustaldi eta entzunaldi baten ondoren erantzutekoak dituzu ondorengo lau galderak. Erreportajearen eduki nagusiaz galdetuko zaizu horietan: gai eta azpi-gaiez, ideia nagusiez... Erreportajea ikusten (eta arretaz entzuten) hasi aurretik, emaezu gainbegiratu bat galdera horiei.

1. Zein da erreportajearen gai orokorra eta zein bertan garatzen diren azpi-gaiak? Osa ezazu honako eskematxo hau.

Gai nagusia

--	-------

Azpi-gaiak

-
-
-
-
-

2. Honako esaldi hauen artetik zeinek adierazten du modurik egokienean erreportajearen ideia nagusia?

- a. Ipuin zaharren bitartez ezagutzen ditugu Euskal Herrian heriotzaren inguruan egon diren ohiturak.
- b. Euskal Herrian heriotzaren inguruko ohitura asko agon da eta garrantzi handia izan dute bertako gizon eta emakumeen bizitzan.
- c. Kanpai-joaldien bitartez jakinarazten zen norbaiten heriotza.



Bigarren ikustaldi baten ondoren hainbat datu zehatz eta xehetasuni erreparatuko diozu ondorengo galderei erantzuteko. Lehen egin duzun bezala, irakur itzazu galdera horiek; horrela, erreportajea berriro ikustean arreta zeri jarri behar diozun jakingo duzu.

5. Zer ote da dandara bat?

- a. Kanpaikada, kanpai-hotsa.
- b. Kanpaiaren mugimendua.
- c. Kanpai-hotsa entzutean sentitzen den dardara edo hotzikara.

6. Esanahiari erreparatuta, zein da soberan dagoen hitza?

- a. Kanpaia
- b. Errespontsua
- c. Zintzarria
- d. Ezkila
- e. Txintxirria
- f. Txintxiña

7. Zertarako erabiltzen da honako esamolde edo esaldi bakoitza?

- a. "Osasuna enkomendatzeko."
.....
- b. "Zeruan elkar ikus dezagula."
.....
- c. "Honek badik, honek badik, goazen Korreo kaletik; honek ez dik, honek ez dik, goazen Arpauso kaletik."
.....

Erantzun posibleak:

- 1. Txantxa edo bromatarako
- 2. Hildakoari agur esateko
- 3. Doluminak agertzeko



8. Honako hauen artetik, zein dira erreportajearen aipatzen diren ehorzketa lekuak?

- a. Etxeko kanpoaldea, teilatu hegalaren azpian.
- b. Nafarroako zenbait herri.
- c. Hilerriak.
- d. Etxeko gela nagusia.
- e. Elizetako zorupea.
- f. Elizabide edo korputzbidea.

9. Zein herriri dagokio opari-multzo bakoitza? Lotu marra batez.

- | | |
|-------------------------------|-------------|
| a. Txahalkia, ogia eta ardoa. | 1. Albiasu |
| b. Ogia eta oiloa. | 2. Areso |
| c. Harizko maindirea. | 3. Azkarate |
| d. Ardi-izterra eta ogia. | 4. Erasun |
| e. Garia. | 5. Zumaia |

10. Erreportajearen esaten denaren arabera, zer esanahi dagokio honako kanpai-joaldi bakoitzari?

- a. Sei joaldi: hiru, ezkila handiarekin; eta beste hiru, txikiagoarekin.
.....
- b. Hogeita hamahiru kanpaikada, hamaseigarrena eta hamazazpigarrenaren artean beste txikiago bat tartekatuz.
.....
- c. Aingeru-txintxiñaren joaldi azkarra.
.....

Erantzun posibleak:

- | | |
|-------------------------------|---|
| 1. "Gizonezko bat hil da." | 4. "Herri barruko norbait hil zorian dago." |
| 2. "Emakume bat hil da." | 5. "Baserriren bateko norbait hil zorian dago." |
| 3. "Hildakoa ezkongabea zen." | 6. "Haur bat hil da." |